

KAYETANO SANCHEZ IRURE

EUSKALDUN ZINTZOARI OROIPENA

¡JAUNGOIKUAK BEREGAN DEZALA!

ILL onen 24^{-an} il da gure lagun atsegin ta maitekorra Kayetano Sanchez Irure jauna.

Euskeraren alde zale bizi ta sutsua izan zan beti. Al zitubenak, eta ezin zitubenak ere, gure izkuntza maitagarria'rentzat opa izan zitun bizi guziyan. Geyago lezaketenak ugariñago izan litezke, baña gogo geyago izan dutenak biatzakin konta ala izango dira nozki.

Azkenetako bere lana antzokirako izan da. Donosti'ko euskal iztundeak ikasiya dauka *Azken beltza* izendatzen dan abalizketa. Gizarajua zoratzen zegon bere egipena antzokiyan ikusteko. Makiñabat aldiz esan digu. Ala ez biar. Ludi ontatik alde egin du, abalizketa aurkestatu baño len.

¡Jaungoikuak beregan dezala!

TORIBIO ALZAGA

* * *

¡GIZAGAJUA!

Sega zorrotzak ebaki dizu
bizi maitiaren ertza,
eriotza da begiz illuntzen
gaituen ukezko eza;
nere biyotza Jaun Zerukuak
kemenez ugari beza,
garbi dezatan lagatz kakotik
chinchilik daguen pertza,
kedar zikiñak ezta ez dezan
zuria dan, *Azken beltza*.